Jugar en el barrio, deporte de riesgo.
Auzoan jolastea, arrisku kirola.

AZ

¿?

eraso sexista homofobo transfoborik ez!



CARNAVALES DE ALDE ZAHARRA-KO INAUTERIAK 2025

OTSAILAREN 28TIK MARTXOAREN 3RA

DEL 28 DE FEBRERO AL 3 DE MARZO

ORGANIZA ALDE ZAHARREKO JAI BATZORDEAK ANTOLATZEN DU









AUZOAN JOLASTU? ARRISKU KIROLA

Urtea hasi da eta bapatean kirola egiteko egundoko beharra sentitu dugu. Telefonoa denbora gutxian sasoi bikaina lortzeko errutina magikoz bete zaigu. Eta noski, nola ez diogu eskainiko gure gorputzari egunean hamar minutuko errutina sinple bat, hori baino askoz gehiago maite dugu gure gorputza!

Behin erabakia hartuta, etxeko armairura jo dugu. Non daude praka laburrak, kamiseta zaharrak... horrela ezin da kirolik egin! Nahiko sufrituko dugu izerdiarekin, behintzat, elegante joan gaitezen. Orduan, telefonoa hartu eta urrunetik ekarriko dituzten kirol arropa eder eta merkeen bila goaz. Sarean ez dugu ezer topatu, beraz, kanpoaldeko merkataritza gune handietara joko dugu. Autoan sartu eta kolpean konturatu gara: erosketak egitekotan, hobe auzoan.

Listo: asmoa eta moda-modako arropa. Kalera ateratzeko unea. Baina ezinezkoa da! Auzoko kaleak turistaz, ezkondu aurreko bazkariz, terrazaz eta abarrez lepo daude. Jitora joan gintezke, baina euria ari du. Mañuetara orduan, baina bustia dago baita ere. Jokatzeko aukera bakarra apustu etxeek ematen digute, baina hori ez da inondik inora joko garbia.

Hau onartezina da! Honetarako ere auzoa lapurtu digute. Beraz, ihauteri hauetan elkar gaitezen auzokide, lagun edota senideekin Alde Zaharreko kaleak eta plazak berreskuratzeko, baita kirola egiteko ere. Ez dago adin mugarik, ez gara profesionalak izan behar, gaur egungo kirolak, aspaldikoak edota etorkizunekoak, denek balio dute. Kalera atera gaitezen auzoan jolastea ez dadin arrisku kirola izan!



¿JUGAR EN EL BARRIO? DEPORTE DE RIESGO

Comienza el año y, de repente, sentimos la urgente necesidad de hacer deporte. El teléfono se nos llena de rutinas mágicas para ponernos en forma en poco tiempo. Y cómo no vamos a dedicarnos una rutina sencilla, de diez minutos al día... ¡queremos a nuestro cuerpo mucho más que eso!

Tomada la decisión, vamos al armario: pantalones cortos, camisetas viejas... ¡Así no se puede hacer deporte! Tendremos que ir elegantes, que ya sufriremos suficiente con el sudor. Volvemos al teléfono, en busca de ropa de deporte bonita, barata y traída de lejos. Como no encontramos nada en la red, habrá que ir a un gran centro comercial de las afueras. Pero, al subir al coche, nos damos cuenta: las compras, mejor en el barrio.

Ya tenemos todo: la intención de hacer deporte y ropa a la moda. Es el momento de salir a la calle, ¡pero es imposible! Las calles del barrio están abarrotadas de turistas, de terrazas, de despedidas de solteros y de solteras, y de tantas otras cosas. Iríamos al Jito, pero está lloviendo. A la Mañueta, entonces, pero también está mojado. La única opción de jugar nos la dan las casas de apuestas, pero ese no es para nada un juego limpio.

¡Es inaceptable! Para esto también nos han robado el barrio. Por eso, estos carnavales nos juntaremos con vecinas y vecinos, con amistades, con nuestra familia, y saldremos a recuperar las calles del Casco Viejo, y también a hacer deporte. No hay límite de edad, no hace falta que seamos profesionales, podemos elegir deportes actuales, antiguos, imaginar deportes futuros... todo vale. ¡Salgamos a la calle para que jugar en el barrio deje de ser un deporte de riesgo!



PERTSONAIAK PERSONAJES



Zitala



Mari-Trapu

Nabarreriako buruzagi

1276

Enrike I. nafar erregea hil zenean, haien alaba Jone oraindik hiru urteko haurra zenez, gaztelarrek Nafarroa militarki konkistatzeko egoera baliatu nahi izan zuten. Gainera, Iruñeko apezpikua zen Armingot gaztelar gaiztoak nabarmen lagundu zien. Berak menperatzen zuen Nabarreria Done Nikolas eta Done Saturdi burgoen aurka oldarrarazteko erabili zuen. Bien bitartean, gaztelar armadak Lizarrerrian triskantza handiak egin zituen eta Iruñerantz hurbiltzeko asmoa zuen Done Nikolas eta Done Saturdi ere memperatzeko. Nafar armada, baina, lehenago heldu zen, eta frantses armadaren laguntzaz Erreniegan gaztelarrak garaitu zituzten, geroago Nabarreria ere erasotuz eta txikituz. Horri esker, nafar erresumak independentziari eutsi ahal izan zion.





Al morir el rey de Navarra Enrique I, como su hija Juana sólo era una niña de tres años, los castellanos quisieron aprovechar la situación para conquistar militarmente Navarra. Además, el malvado castellano Armingot, obispo en Pamplona, les ayudó mucho. Él, que dominaba Navarrería, la enfrentó contra los burgos de San Nicolás y San Saturnino. mientras el ejército castellano causaba grandes daños en Tierra Estella y se acercaba a Pamplona para someter a los burgos de San Nicolás y San Satunino, el ejército navarro (que acudían a la llamada de ayuda de estos burgos) llegó antes, y con la colaboración del ejército francés derrotó a los castellanos en Erreniega (El Perdón), atacando y destruyendo en consecuencia y a la vuelta de la batalla, también Navarrería. Gracias a ello el reino de Navarra pudo mantener su independencia.

INAUTERIETAKO KONDAIRA

Bazen behin, hiri zahar-zahar bat, non inork gogoratzen ez dituen istorio ugari gertatu baitziren.

Bazen behin, basoan bizi ziren hiru atso azti, inauteri guztietan hirira hurbiltzen zirenak.

Bazen behin, hiri zahar horren auzo zaharrena. Hiru aztien eskutik inork ahantziko ez zuen istorio berezia entzuteko zain egoten zen auzoa.

Eta baziren behin Nikolasa, Nabarriria eta Jonesaturdi aztiak. Su baten inguruan eseriak, trapuzko panpina bat josten zuten bitartean, gerra eta beldur giroko, eta neskatila ausarten inguruko gogoetak zituzten... Eta istorio hori ezagutu arte, ez duzu zergatia jakingo.

Urtero inauterietan, basoan bizi ziren hiru aztiek hiri horretara hurbiltzen ziren. Gaur ezagutzen dugun hiriarekin ez dauka zerikusirik; txikiagoa zen, ez zegoen kotxerik eta biztanleak hiru auzo ezberdinetan bizi ziren, harresiz bananduak. Auzo hauen arteko harremana batzuetan ona, eta besteetan okerragoa zen. Auzo hauek burguak ziren: Nabarreria, Done Saturdi eta San Nikolas. Bakoitzak bere buruzagia zuen. Asko agintzen zuten buruzagiak ziren, baina bere aginduak, ez ziren beti egokiak.

San Nikolas eta Done Saturdi auzoen artean Joana printzesa bizi zen, Nafarroako errege-erreginaren alaba. Joanak ama eta aitarik izan ez arren, bera txikia zenean hil baitziren, oso neska adoretsua eta alaia zen. Printzesari, Maritrapu deitzen zioten; bere gurasoek trapuzko panpina bat oparitu baitzioten, inoiz bakarrik egon ez zedin eta babestuko zuen panpina. Hartaz, Joana, beti bere panpina eskutan zuela zihoan.

Panpina hau oso berezia zen, panpina magikoa alegia. Eskuetan zuenak, beti izango zuen nahi zuena egiteko askatasuna. Joanak izugarrizko bihotz handia zuenez eta normalean pozik egoten zenez, bere desioak alai eta dibertigarriak izaten ziren. Horregatik, San Nikolas eta Done Saturdiko Burguak aske eta pozik bizi ziren, eta dantza eta kanta egiteko oso toki onak ziren.

Baina beste auzoan, Nabarrerian, buruzagi jeloskor eta zeken batek agintzen zuen, bihotz ilun, aspertu eta goibela zuena. Horregatik, bere Burgua bera bezalakoa bilakatu zen, toki goibela, iluna eta aspergarria. Nabarreriako Jauna, magia maltzurraz gain, panpinaren sekretua ezagutzen zuen, eta horregatik, beraren-tzako nahi zuen panpina hori. Edozer gauza egiteko gai zen bere bihotz ilunak nahi zuena lortzeko. Hain zen zekena eta jeloskorra, ezen hiru burguak beraren-tzako bakarrik nahi baitzituen, hirurak toki ilun, goibel eta aspergarri bilakatzeko. Jauntxo honek ez zuen ez dantzarik ez barrerik egiten. Jende guztia isilik eta aspertua egotea gustatzen zitzaion. Eguzkia baino, nahiago zituen hodeiak, eta hotza beroa baino. Horrela mundu ordenatuago bat zuzenduko zuela pentsatzen zuen. Nabarreriako jaunak Zitala izeneko bele handi bat zeukan, egunero Done Saturdi eta San Nikolaseko burguen gainetik hegan egiten zuena, Maritrapuri panpina lapurtzen saiatzeko.

Otsaileko egun batean, negua inoiz amaituko ez dela dirudien horietako batean, Maritrapu San Nikolaseko gotorlekuaren puntan jolasten zegoelarik, tupustean haize indartsu eta maltzur batek panpina eskuetatik kendu zion. Aukera hori baliatuz, Zitala beleak, bere moko luze eta zorrotzarekin harrapatu, eta hegan eraman zuen, Nabarreriako Burguan zegoen Katedralerantz. Momentu berean, etortzear zegoenaren iragarpen beldurgarri bat balitz bezala, bele multzo batek zerua estali zuen, hiru burguak sekulako iluntasun hotz batean murgildurik.

Maritrapu beldurturik, zaldi bat eta bi lagunen languntzaz, Iosubasa maisu handiarengana jo zuten. Maisuak adi entzun zuen Maritrapuk kontaturikoa, eta beldurtu egin zen Maritrapuk panpina galtzean zerua belez bete zela entzun zuenean, jakitun baitzen hori ez zela ezer onaren seinale. Maisuak argi zuen: Burguek, Joanak eta Panpinak laguntza behar zuten, eta berak bazekien non aurkitu. Horretarako, ordea, ezkutatu egin beharko zela jakinda, Zakudindaz mozorrotzea erabaki zuen. Honela Jaun ilunaren informatzaileek ez zuten aurkituko.

3 egun eta 3 gau eman zituen Iosubasak, herriak, ibai eta mendiak zeharkatuz, Pirinioen bestaldean kokatuta zegoen lurralde frankora iristea lortu zuen arte. Bertan bizi baitziren lagunduko zioten anai-arrebak.

Iosubasak Maritrapuren istorioa kontatu zienean, bere anai-arrebek arku bat eta suzko gezi bat oparitu zioten, zeinak beti jomugan asmatzen zuten. Honetaz gain, otso talde baten babesa eman zioten, bele ilunengandik babesten lagun ziezaioten. Animalia horien laguntzarekin, Iosubasak eta Maritrapuk babesa ematen zien panpina berreskuratuko zuten, eta beraien herriari askatasuna



eta alaitasuna itzuliko zioten. Ezin zuten onartu panpina magikoak bihotz zeken eta goibel baten menpe jarrai zezan.

Arma magikoa eskuan zuela eta otso taldeak babesten zuela, Iosubasa Frankoen lurraldera joateko erabilitako bide beretik itzuli zen, zeharkatutako ibai, herri eta bide bakarti berdinetatik, Burguetaraino iritsi aurreko azken mendira ailegatu arte. Maisuak eta otsoek gaua izan arte itxaron zuten ustekabean eraso egiteko. Iosubasak, arku eta geziaz armaturik, Nabarreriako Jauntxoari egin zion eraso, eta otsoek beleei.

Ezusteko erasoa izan arren, Jauntxoak, bere magia ilunari esker, Iosubasaren asmoak aurretiaz ezagutu zituen, beleak otsoen erasorako prestatuz. Dena den, Jauntxoak koldar jokatu zuen eta Zitala belearen gainean hegan ihes egiten saiatu zen, beleak panpina mokoan zeramala.

Animalien arteko borroka herri hartan inoiz ikusitako gogorrena izan zen. Hasieran, beleek otso adoretsuak garaituko zituztela zirudien, baina momentu horretan, Iosubasak borrokaren arrastoen artean Joana bilatu, eta hari eman zizkion arkua eta hutsik egiten ez zuen suzko gezia, berak ez beste inork ezingo baitzituen erabili. Joanak arkua eta gezia hartu, eta gau ilunaren eta borrokaren gainetik, argi ikusi zituen Zitala belearen bihotz hotza babesten zuten lumak. Destatu, jaurti, eta suzko gezia belearen bularrean sartu zenean, Jaun iluna, belea eta panpina, sutan zegoen Burguaren erdira erori ziren. Bi izakiak kiskaltzeko unean, ingurua isilpean geratu zen.

Joana printzesak eta herritarrek etenik gabe bilatu zuten Zitalaren mokotik erori zen panpina, baina zaila da trapuzkoa izanik sute baten erdian bizirautea. Bilatzen jarraitu arren, ez zuten aurkitu. Guda irabazi arren, panpinak ematen zien askatasuna galdu zuten.

Eta panpina josten jarraitzen duten bitartean, hiru azti zaharrek, hau da, Nikolasak, Nabarreiriak eta Jonesaturdik, Maritrapuren, Nabarreriako Jauntxoaren, panpinaren eta belearen istorioa gogoratzen dute inauterietan. Gure hiria bihotz ilun, zeken eta goibel horren hatzaparretatik askatu zuten garaipena ospatzen dugu. Era berean, urtero Maritrapuren panpina bilatzen jarraitzen dugu, berarekin batera hainbeste desiratzen dugun askatasuna aurkitzeko esperantzaz.



NABARRERIA KARRIKA

- Aizkora
- Albergue Plaza Catedral
- Alberto Erce
- Eguzki Irratia
- Italian Corner
- Karmele Berri
- La Galganni pizzeria
- La Tentación de Navarrería
- Primhos
- Suministros Nabarreria
- Taberna

KARMEN KARRIKA

- Albergue de Pamplona
- Arrano Elkartea
- Atelier 17
- Casa Ibarrola Albergue
- Comisión Antisida
- Encuaderna-ciones Alfaro
- Iratxe
- Ultreia

ALDAPA KARRIKA

- Asociación Amigos de los Castillos

MAIATZAK 2 KARRIKA

- Duguna

KURIA KARRIKA

- Abén Moda y Complementos
- Anadi
- Apaindu
- Eli Masajes y terapias saludables
- Especialité
- La Sensación de Curia
- Pastas Beatriz

KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK
COMERCIOS COLABORADORES

CUENTO DE CARNAVAL

Érase que se era, una ciudad muy vieja en la que habían pasado muchas historias que ya nadie recordaba.

Érase que se eran tres ancianas magas del bosque que cada carnaval a esa ciudad se acercaban.

Y érase que se era el barrio más antiguo de esa vieja ciudad que las esperaba, a que contaran una historia muy especial para que nadie la olvidara.

Érase que se eran las magas Nicolasa, Navarriria y Jonesaturdi sentadas alrededor de un fuego recordando tiempos de guerras, miedo y niñas valientes, cosiendo mientras una muñeca de trapo. Y hasta que no conozcas su historia, no sabrás por qué.

Hace muchos años, nuestra ciudad era distinta a como es ahora. Era más pequeña, no tenía coches y la gente vivía en tres barrios separados por murallas. Barrios que a veces, se llevaban mejor y a veces, se llevaban peor. Estos barrios eran los Burgos: Navarrería, San Saturnino y San Nicolás. Los tres tenían sus jefes, que mandaban mucho, y que a veces, acertaban y a veces, se equivocaban con lo que mandaban.

Entre el Barrio de San Nicolás y San Saturnino, vivía la princesa Juana, hija de los Reyes de Navarra. Juana era una niña valiente y alegre a pesar de que no tenía mama y papa, ya que murieron cuando era muy pequeña. A la princesa, en vez de Juana, le llamaban Maritrapu porque siempre llevaba consigo una muñeca de trapo que su madre y su padre le regalaron para que nunca se quedara sola y para que le protegiera. Esta, era una muñeca muy especial, era una muñeca mágica. Quien la tuviera en sus manos, siempre sería libre de hacer lo que quisiera. Como Juana era una niña que solía estar contenta y poseía un corazón que palpitaba generoso, sus deseos eran felices y divertidos. Y por eso, el Burgo de San Nicolás y el de San Saturnino vivían en paz y libres, siendo buenos lugares para bailar, cantar y ser feliz.

Pero en el otro barrio, la Navarreria, había un jefe envidioso y avaricioso, con un corazón oscuro, triste y aburrido, que palpitaba muy despacio. Por eso convirtió su burgo en lo que él era, un lugar triste, oscuro y aburrido. Este jefe, el Señor de

la Navarrería, además de la magia más terrible, conocía el poder de la muñeca de Maritrapu, y por eso quería robarla. Haría cualquier cosa con tal de conseguir lo que su negro corazón deseaba. Era tan envidioso y avaricioso que quería los tres Burgos solo para él, para convertirlos, los tres, en lugares tristes, oscuros y aburridos. Este Señor, no conocía la risa ni el baile. Le gustaba que toda la gente estuviera callada y con cara de tristeza. Prefería las nubes al sol, el frío al calor. Le parecía que así, el mundo era más ordenado. Este Señor de la Navarreria tenía un cuervo monstruoso que se llamaba Zitala al cual ordenaba sobrevolar todos los días los Burgos de San Nicolás y San Saturnino con la orden de robar la muñeca a Maritrapu en cualquier descuido.

Un día de febrero, de esos que parece que el invierno no va a acabar nunca, estaba Maritrapu jugando con su muñeca en lo más alto de la fortaleza de San Nicolás, cuando un viento maligno le arrebato el juguete querido de sus manitas. El cuervo Zitala, que estaba acechando, no perdió su oportunidad y... de repente ¡Zaasss!, la agarró con su pico largo y afilado, y se la llevó volando, hacia la catedral que se hallaba en el burgo de Navarrería. Justo en ese momento, como si de un terrible anuncio de lo que estaba a punto de suceder se tratara, un vendaval de cuervos invadió el cielo, dejando los tres Burgos en la más absoluta, triste y fría oscuridad.

Maritrapu, desesperada y asustada, cogió un caballo y dos acompañantes como séquito y se fue en busca de ayuda. Acudió al gran y buen Maestro Iosubasa, que vivía lejos de la ciudad y de sus leyes. El Maestro, la escuchó atentamente, y se horrorizó cuando Maritrapu le contó que al perder la muñeca, el cielo de la ciudad se había cubierto con un ejército de cuervos, puesto que sabía que no auguraban nada bueno. El Maestro enseguida lo tuvo claro: Los Burgos, Juana y la Muñeca necesitaban ayuda, y él sabía dónde encontrarla. El Maestro Iosubasa debía ocultarse para poder conseguir su propósito y encontrar ayuda, y así decidió disfrazarse de Zakudinda consiguiendo que los informadores del negro señor no lograran descubrirle. Durante 3 días y 3 noches estuvo Iosubasa andando, rodeando los pueblos, cruzando ríos y montes, hasta qué logró llegar al territorio franco que se encontraba al otro lado de los Pirineos, donde vivían sus hermanos y hermanas, a las que no dudó en pedir ayuda.

Cuando Iosubasa contó la historia de Maritrapu a los que en aquel territorio vivían, sus hermanos y hermanas le regalaron un arco y una flecha de fuego que siempre daba en el blanco. Asimismo, le ofrecieron la protección de una manada de lobos para que le ayudaran a protegerse de los cuervos malignos. Junto a estos animales, Iosubasa y Maritrapu recuperarían la muñeca que la protegía y proporcionaba libertad y mucha felicidad a su Pueblo. No podían permitir que la Muñeca mágica continuara en manos de un corazón oscuro y egoísta.

Con la manada a sus espaldas protegiéndole y portando en la mano el arma má-



gica, Iosubasa volvió tras sus pasos, atravesando los mismos ríos, pueblos y caminos solitarios, hasta llegar a la última montaña antes de alcanzar los Burgos. Los lobos y el Maestro, esperaron a que se hiciera de noche cuando atacaron por sorpresa. Iosubasa armado con el arco y la flecha, contra el señor de la Navarrería. Los lobos, contra los cuervos.

A pesar del ataque sorpresa, gracias a la magia negra, el Señor de la Navarrería supo antes de tiempo que iba a ser atacado. Conjuró a sus cuervos para que se prepararan para el ataque de los lobos. Y él, tan cobarde como malvado, intentó escapar sobrevolando la ciudad montado en su cuervo Zitala, que llevaba la muñeca en el pico. La batalla entre los animales fue la más cruel que nunca vio este pueblo y parecía que los cuervos acabarían venciendo a los nobles lobos. Fue entonces cuando Iosubasa, entre las llamas y la destrucción, buscó a Juana y le entregó el arma mágica, el arco y la flecha de fuego que siempre daba en el blanco, ya que solo ella podía empuñarla en ese momento. Juana cogió el arco y la flecha y a pesar de la noche y la guerra, pudo ver perfectamente las plumas negras del cuervo Zitala que protegían su corazón frío de criatura maligna. Apunto, disparó, y justo cuando la punta incendiada atravesaba su pecho, Zitala abrió el pico y la muñeca, el cuervo y el malvado señor cayeron en medio del Burgo en llamas. Cuando ambos seres infernales murieron, de pronto el lugar se quedó en silencio.

La princesa Juana y la vecindad de Iruñea buscaron y buscaron a la pequeña muñeca que había caído del pico de Zitala cuando Maritrapu le atravesó con su flecha en llamas pero es complicado ser de trapo y sobrevivir a un incendio tan terrible. Buscaron y buscaron pero por mucho que lo intentaron, no encontraron nada. Habían vencido la batalla, pero ya nunca más consiguieron recuperar la libertad que la muñeca, al estar en manos de Maritrapu, les proporcionaba.

Y mientras acaban de coser la muñeca, las tres ancianas magas, Nicolasa, Navarriria y Jonesaturdi recuerdan cómo, desde entonces y hasta ahora, cada carnaval recordamos la historia de Maritrapu, el malvado señor de la Navarreria, la muñeca y el cuervo. Celebramos la victoria que libró a nuestra ciudad del poder del malvado señor de corazón oscuro y egoísta. Pero también, como cada año, seguimos buscando a la muñeca de Maritrapu. Y ansiamos recuperar junto a ella, nuestra libertad.

KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK
COMERCIOS COLABORADORES

SAN MIGUEL KARRIKA
Colchonería Purroy
Droguería Emilio López
Spa de Uñas Vivi
Vinoteca Damaxen

SAN NIKOLAS KARRIKA
Heladería Larramendi
Objetería Los Días Felices
Tea Shop



KOMEDIAS KARRIKA
Bidean | Elkar
IKA euskaltegia
Ruhna

POZOBLANCO KARRIKA
Código

GAZTELU PLAZA
Cristina Tollar
Frutos secos y golosinas D&D
La Zapatillera | Laba
Peluquería Paz Las Palas
Voilà! Estudio arquitectura

TXAPITELA KARRIKA
Ausor | General Óptica
Peluquería Mikel Luzea
Slide

LINDATXIKIA KARRIKA
Chonbag

KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK
COMERCIOS COLABORADORES

SAN FRANTZISKO KARRIKA

Librería Luquin | Moshi Moshi | Podología Casco Viejo | Texartu

ESLABA KARRIKA

Admin. Lotería 10 | Puy & Elvira Estilistas

KANPANA KARRIKA

Petatxo

ANSOLEAGA KARRIKA

Zaldiko Maldiko Elkartea

KARRIKA BERRIA

Carlottas | El Infiernito Guitar Shop | Electricidad Aranai
Espacio Kreiva | Goiener cooperativa | Mundo Oraintxe
Will Hair Sallon

SAN ANTON KARRIKA

Arrasate | Carnicería Javier

ZAPATERIA KARRIKA

Calzados Ibili | Lanas Lady Merino | Mírate | Pablo Goñi
Re-Read | Samoa | Tejanos | Valira



KAUTEROAK

CALDERER@S

OTSAILAK 22 FEBRERO

POTEOA, BAZKARIA ETA KALEJIRA!!



Alde Zaharreko Jai Batzordea
Comisión de Fiestas del Casco Viejo



Auzoak

Laguntzailea / Colabora:



Ayuntamiento de Pamplona | Iruñeko Udala

eraso sexista homofobo transfoborik ez!

KAUTERAK

OTSAILAK 22 LARUNBATA

10:45etan San Lorentzoko dantzanteak: Jarauta, Eslaba, San Frantzisko plaza, Antsoleaga, San Saturnino, Udal plaza, Santo Domingo, Santiago plaza, Merkatuan emanaldia, Mekatutik Udal plazara. Itzulera: kale nagusia, Eslaba, Jarauta.

11:00etan Suzko erraldoiak: Nabarreria, Merkaderes, Estafeta, Udal plaza. Itzulera: Merkaderes, Nabarreria.

11:30etan Animalien Dantzak: Iruña Taldeko egoitzatik, Kale Nagusia, Eslaba, San Frantsiko, San Migel kalea, San Nikolas plaza, San Nikolas kalea, Pozo Blanco kalea, Zapateria kalea, Udal plaza, Merkaderes eta Mañueta. Itzulera: Merkaderes, Udal plaza, Kale Nagusia eta San Lorentzo.

12:30etan Udal plazan elkartu eta **emanaldia.**

15:00etan Kauteren Bazkaria.

18:30etan Kauteren Kalejira Iruña Taldeko egoitzatik: Kale Nagusia, Udal plaza, Jarauta.

21:00etatik aurrera Tzigano Band Iruñeko Algaran.



CALDEREROS/AS

SÁBADO 22 DE FEBRERO

10:45 Danzantes de San Lorenzo: Jarauta, Eslava, plaza San Francisco, Ansoleaga, San Saturnino, plaza del Ayuntamiento, Santo Domingo, plaza Santiago, actuación en el Mercado y de ahí a la plaza del Ayuntamiento. Vuelta: calle Mayor, Eslava terminando en Jarauta.

11:00 Gigantes de fuego: Navarrería, Mercaderes, Estafeta, plaza del Ayuntamiento. Vuelta: Mercaderes, Navarrería.

11:30 Animalien Dantzak: desde la sede de Iruña Taldea, calle Mayor, Eslava, San Francisco, San Miguel, plaza de San Nicolas, calle San Nicolas, Pozo Blanco, Zapatería, plaza del Ayuntamiento, Mercaderes y Mañueta. Vuelta: Mercaderes, plaza del Ayuntamiento, calle Mayor y San Lorenzo.

12:30 Actuación en la plaza del Ayuntamiento.

15:00 Comida Calderera.

18:30 Kalejira Calderera desde la sede de Iruña Taldea: calle Mayor, plaza del Ayuntamiento y Jarauta.

A partir de las 21:00 Tzigano Band en Alegría de Iruña.



TABERNA LAGUNTZAILEAK
BARES COLABORADORES

ALDAPA
Inopia

Zuriza

BERRIA
Caravinagre

CALCETEROS
Viva San fermín

CAMPANA
Bang Bang Ramen
Campana

DESCALZOS
Lanbroa

ESTAFETA
Adoquin gastrobar
Casa Juanito
Cervecería La Estafeta
La Granja
Malakarma
Mesón del Pirineo
Txirrintxa
Zampa


GAZTELU PLAZA
Café Iruña
Gure Etxea
Kiosko
La Tasca de Don José

Napargar
Nuevo Casino

JARAUTA
Aitzina
El Montón
Gallego taberna
Giroa
Katu

Oreja
Viana

JAVIER
Grupo Hostelero Primhos

LABRIT
Café con Sal
Kantxa
Restaurante Arostegui

LINDATXIKIA
Catachu
Kandela

KALDERERIA
Garazi

Gunea
Iris
Terminal
Toki Leza
Zazpi

KARMEN
Aldapa
Herriko Taberna
Krawill
La Pulga

KOMEDIAS
Pa "come" gastrobar music

KONPAÑÍA
Compañía Café
El Café de Pablo

KONTSEILUKO PLAZA
Cafetería Peregrino

KURIA
El Temple

Whanau Smoked

MERCADERES
Cortau Café
Iruñazarra
Mentidero Berria
QWERTY

MERCED
La Cofradía

MERKATUA
Redín

NABARRERIA
Amatxo
Barbacoa
Bidezarra
Cordovilla
Ezkia
La Mejillonera
Los Burgos de Iruña
Mesón de la Tortilla
Mesón Nabarreria

NAGUSIA
García
Katakrak
Taberna

REDÍN
Caballo Blanco

SAN AGUSTÍN
Alegría
Infernu
Jesus Mari

SAN FRANTZISKO
Masala Bistro Kalixto

SAN NICOLÁS
Baserriberri
La Mandarra
Río
Ulzama

SAN SATURNINO
Nara

TEJERÍA
Bacara
Kayak

TRAVESÍA ESPOZ Y MINA
Samadhi Coffee & Tea

UDAL PLAZA
Mol

ERAGILEAK
Alde Zaharreko erraldoiak
Aldezar
APYMA
AZ Kluba
AZ Osasun Taldea
AZGM
Azta
Ernai
Haritu
Jantoki Herrikoia
Jardun
M.S.
Matalaz
Piparrika
Plazara!
Sortu
Zabaldi!

6

5

SANTO DOMINGO KARRIKA

Alimentación Gloria

Carnicería Azcona

Informática San fermín

Mundo Bio

MERKATU KARRIKA

Markaje

Mercado Santo Domingo

SAN SATURNINO KARRIKA

Buttibou

Carnicería San Cernin

Iruña Gourmet

Krabelin

UDAL PLAZA

Óptica Joaquín Alforja

KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK
COMERCIOS COLABORADORES

MERKADERES KARRIKA

Ébano

La Mai

Setem

Souvenirs Echeve

Xaboiak

MAÑUETA KARRIKA

Calzados La Mañueta

Cuchillería J. C. Caneda Viana

Oink

PASAJE ZAKATÍN

J. Fernandez Bosco

ESTAFETA KARRIKA

Alpargatas de mil colores

Cestería Zaika

Elektra

Garrarte

Gurgur

Ibilkari

La Librería de Estafeta

Olentzero

Platero Gigantes

ALDE ZAHARREKO INAUTERIAK / CARNAVALES

OTSAILAREN 25a, ASTEARTEA

17:00etan Mozorroak prestatzeko auzolana Auzoenean.

OTSAILAREN 28a, OSTIRALA

13:00etan Auzo erronka San Frantzisko eskolaren eskutik: “Dantza dezagun plazan elkarrekin Zortziko”.

13:30etan Auzo bermuta Matalazen. Migak egonen dira.

17:00etan Txokolatada Katakraken.

19:00etan Zutabea Matalazetik hasita. Moxaurre eta Alegría de Iruñako mozorroek Zitala Nabarreriako iturrira eramanen dute.

19:00etan “Mari Trapuren segizioa”. Zutabea San Frantzisko eskolatik hasita, Aldezar, Apyma eta haurren eskutik.

19:30etan Inauterietako pregoia Nabarreria plazan.

19:45etan Kalejira Nabarreriatik. Merkaderes, Txapitela, Gaztelu Plaza, San Nikolas, San Migel, San Frantzisko eta Eslaba. Santa Ana plazan amaituko da. Iruña Taldeko, Ortzadar eta Muthiko Alaiak-ko fanfarreak girotuta, Alde Zaharreko joaldunak eta Alegria de Iruña peñako mozorroez lagunduta, Euskal Herriko mozorro ezberdinak erakutsiko ditugu.

20:30etatik aurrera Akelarrea Santa Ana plazan. Pikatzeko txorizoa eskainiko da, Jarauta 69 txarangak alaituta.





MARTXOAREN 1a, LARUNBATA

9:30etan Dianak auzoko karriketan zehar, Haizeberriren eskutik.

11:30etan Txokolatada Nabarreria plazan Arrano eta AEKko lagunen eskutik.

12:00etan Haurrentzako Puxkabiltza musikaz lagunduta. Nabarreriatik hasita eta Merkatuan amaituko da. Aldezar eta San Frantzisko eskolako guraso elkarteak antolatuta.

12:00etan Haizeberri Gaitariak, Iruñeko Algaran hasita.

12:00etan Iruñean Kantuz Merkaderesetik hasita auzoko kaleetan barna.

12:30etan verMUTHIKO ALAIAK giro paregabean.

13:00etan "Auzo Olinpiadak" kolektiboen eta bizilagunen topaketa Zabaldin.

13:00etan POnTE FRITO La Unica Peñan.

15:00etan BAZKARI HERRIKOIA. Txartelak Zabaldin eta Auzoenean salgai.

18:00etan Kalejira kalez kale Elektrotxatungak girotuta. Mozorrotu eta zatos zure gurdiarekin! San Lorentzo, Jarauta, San Saturnino, Udal plaza, Txapitela, Gaztelu plaza, Estafeta, Xabier kalea, Konpainia, Kuria, Nabarreria.

20:00etan Guri Bost kontzertua Iruñeko Algaran.

00:30etan Dantzaldia Luzianorekin Iruñeko Algaran.



MARTXOAREN 2a, IGANDEA

IRUINKOKOA

Kokokontuz! Badator kokoa! Inaute igandez Iruinkokoak hartuko ditu Alde Zaharreko karrikak. Euskaratik eta euskaraz, koko beltzek eta zuriek dantza, musika, antzerkia eta bertsolaritza uztartzen dituen herri antzezpena eskainiko dute. Iruñeko inauteri euskaldunak hiru zati ditu: goizean zenbait lekutan egiten diren asalduak, eguerdian Santa Ana plazan egiten den emanaldi nagusia eta euskaldunon bazkaria. Honatx ordutegia:

9:30etan Iruinkokoa karrika ingurua, Zaldiko Maldikotik abiatuta.

10:00etan Telleria kaleko auzokideak.

10:30etan Txalaparta (kale Nagusian).

11:00etan AEK Iruñezar euskaltegia (Errekoleten kalea).

11:30etan Ortzadar (Descalzos kalea)

12:30etan Iruinkokoa emanaldia, Santa Ana plazan.

Ondotik, euskaldunon bazkaria Arrano elkartean (tiketak Karrikirin, 22€).

MARTXOAREN 3a, ASTELEHENA

17:30etan Askaria Puska biltzean jasotakoarekin Burgoen plazan. (Euria ari badu, Mañuetako frontoian).

19:00etan Zitala Nabarreriatik hartuko dugu eta auzoko Erraldoi txikien konpartsa, trikitilari eta gaitariekin kalejiran joanen gara, Merkaderes, Udal plaza, San Saturnino eta Jarautan barna ibiliko gara Santa Ana plazaraino. Salda beroa banatuko da.



MARTES 25 DE FEBRERO

17:00 Auzolan para preparar disfraces rurales en Auzoenea.

VIERNES 28 DE FEBRERO

13:00 Reto vecinal de la mano de la escuela San Francisco: “Bailemos en la plaza un Zortziko”.

13:30 Vermut de barrio en Matalaz. Habrá migas.

17:00 Chocolatada en Katakrak.

19:00 Kalejira desde Matalaz. La peña Alegría y Moxaurres llevarán a Zitala a la fuente de Navarrería.

19:00 “Cortejo de Mari Trapu”. Kalejira desde San Francisco con Aldezar, Apyma y las txikis.

19:30 Pregón de Carnaval en la plaza Navarrería.

19:45 Kalejira desde Navarrería. Mercaderes, Chapitela, Plaza del Castillo, San Nicolas, San Miguel, San Francisco y Eslava. Finalizará en la plaza de Santa Ana. Amenizados por la fanfarre de Iruña Taldea, Ortzadar y Muthiko Alaiak, Joaldunak del barrio y disfraces de Euskal Herria con la peña Alegría de Iruña.

20:30 en adelante, Akelarre en Santa Ana. Se ofrecerá chorizo para picar, animado por la txaranga Jarauta 69.

SÁBADO 1 DE MARZO

9:30 Dianas por las calles del barrio, de la mano de Haizeberri.

11:00 Chocolate en la plaza Navarrería de la mano de Arrano y AEK.

12:00 Puxkabiltza infantil acompañada de música. Desde Navarrería, terminando en el Mercado. Organizado por Aldezar y la APYMA de San Francisco.

12:00 Gaiteros Haizeberri, desde la peña El Bullicio.

12:00 Kantuz desde Mercaderes por las calles del barrio.

12:30 verMUTHIKO ALAIAK en un ambiente único.

12:30 Olimpiadas de barrio, punto de encuentro entre colectivos y vecinas en Zabaldi.

13:00 POnTE FRITO en la peña La Única.

15:00 COMIDA POPULAR. Tikets a la venta en Zabaldi y Auzoenea.

18:00 Kalejira por las calles amenizada con música. ¡Elige tu disfraz y ven con tu carroza! San Lorenzo, Jarauta, San Saturnino, plaza del Ayuntamiento, Chapitela, plaza del Castillo, Estafeta, Bajada Javier, Compañía, Curia, Navarrería.

20:00 Concierto de Guri Bost en la peña El Bullicio.

00:30 Bailables con Luziano en la peña El Bullicio.

MARTXOAREN 2a, IGANDEA

IRUINKOKOA Kontsultatu egitaraua euskarazko programazioan.

LUNES 3 DE MARZO

17:30 Merienda con lo recogido en la Puskabiltza en la plaza de los Burgos. (En caso de lluvia en el frontón de Mañueta).

19:00 Cogeremos a Zitala de Navarrería e iremos en kalejira con la comparsa de Gigantes Txikis, trikitilaris y gaiteros del barrio, recorreremos Mercaderes, plaza Ayuntamiento, San Saturnino y Jarauta hasta la plaza Santa Ana. Se repartirá caldo caliente.





BAZKALDU KOMUNITATEAN

LA COMIDA EN COMUNIDAD

INFORMAZIO GEHIAGORAKO GALDETU AUZOENEAN

PARA MÁS INFORMACION PREGUNTAR EN AUZOENEA





HERRI JANTOKIA
COMEDOR POPULAR



Elkarrekin bazkaltzen dutenak elkarrekin mantentzen dira

KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK
COMERCIOS COLABORADORES

XABIER KARRIKA

Ihitz Iriart Fisioterapia
Karrikiri
La tienda de la esquina

KALDERERIA KARRIKA

Carnicería Goñi
Iruña Taldea
Salón de Belleza Gloria
Pescadería La Kontxa

SAN AGUSTIN KARRIKA

Artigiana Pizza

KONPAÑIA KARRIKA

EOIP-IHEO
Taller Mónica Logar

MERCED KARRIKA

TBO

TEJERIA KARRIKA

Aitziber Avelino estilistas

JUAN DE LABRIT KARRIKA

Clínica Veterinaria Labrit
Gráficas San Fermín
TAI Tattoo

DORMITALERIA KARRIKA

Bidari Arte
Caramelo Vintage





KOMERTZIO LAGUNTZAILEAK
COMERCIOS COLABORADORES

KARRIKA NAGUSIA

Aika | Antartika | Beunza Luz | BM | Deportes Zariquiegui
El Camerino | Haizea | Joxenea | Lislore | Lois | Maitagarri
Medina | Ortega | París 365 | Samoa | Skaner Shop
Tejidos Anma

SAN LORENZO KARRIKA

Guarnicioneria Cebrián | Iruña taldea | May Stylist | Two Wheels

BARATXURIEN PLAZA

AEK euskaltegia | Telas Tximeleta

SANTO ANDIA KARRIKA

Carpintería Pagoa anaiak

DESCALZOS KARRIKA


Gabinete Trama

JARAUTA KARRIKA

Nafarroa Kirol Elkartea

PEÑAK

Aldapa | Alegría | Anaitasuna | Bronce | El Bullicio | Irrintzi
La Única | Muthiko Alaiak | Oberena



Alde Zaharreko Jai Batzordearen izenean,
urtez urte gure inauterietako programa aurrera atera
dadin diru laguntza eskaintzen duten taberna eta denda
guztiei eskerrak eman nahi dizkiegu. Mila esker!

En nombre de la Comisión de Fiestas del
Casco Viejo queremos agradecer a todos los comercios
y bares que año tras año colaboran activamente para
que este programa salga adelante. ¡Muchas gracias!

IRUIN KO KOA

Ig.

2025/03/02

IRUÑEKO
IÑAUTERI
EUSKALDUNA

9:30 *Karrika ingurua Zaldiko Maldikotik*

- *Telleria kaleko auzokideak*
- *Txalaparta*
- *AEK Iruñezar euskaltegia*
- *Ortzadar*

Bukatzean, *emanaldia Santana plazan (euria egitekotan Mañuetako frontoian)*

Ondotik, euskaldunon bazkaria Arrano elkartean
Txartelak Karrikiri dendan salgai 22€

